1. Las solicitudes de ayuda deberán formalizarse en impreso informatizado en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes, previamente a la realización de la inversión, salvo en causas justificadas que se contemplen en la convocatoria anual, e irán acompañadas, además de la documentación técnica que en cada línea de ayuda se especifica, por la que se determine en la convocatoria anual.

2. En el caso de ayudas basadas en la superficie, deberá incluirse en la solicitud, el plano de situación de los terrenos según SIGPAC, identificando los polígonos y parcelas, así como los datos que en cada caso se requieran para elaborar el correspondiente informe y certificación de obra.

3. Si se advirtiera en la solicitud o la documentación presentada la existencia de algún defecto, carencia o inexactitud, se comunicará a la persona solicitante, y se le concederá un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación, indicándole que, transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistida en su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4. El plazo de presentación de solicitudes se determinará en las correspondientes convocatorias.

5. Sólo se admitirá un expediente de solicitud por explotación y convocatoria. En cada expediente podrán incluirse distintas líneas de ayuda.

*Base 16. Cuenta justificativa de la subvención.*

1. De conformidad con lo establecido en el artículo 49.3 del Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las personas beneficiarias deberán presentar al guardería forestal la documentación señalada en esta base para la justificación de las ayudas. Asimismo, el personal técnico y/o del guardería forestal del Departamento de Equilibrio Territorial Verde comprobará sobre el terreno la realización de las inversiones subvencionadas.

2. En los casos de inversiones y actuaciones constituidas por prestaciones de servicios efectuadas por terceras personas o adquisiciones de productos, como documentación acreditativa de las inversiones ejecutadas deberán presentarse facturas

EK\CV GAO-I-2024-03086

administratiboa duten gainerako agiriak erabiliko dira. Fakturetan obra-unitateen deskribapena, neurketa eta zenbatekoa jaso beharko dira. Fakturan sartutako material-horniduren justifikazioa eskatu ahal izango da.

3. Dirulaguntza onartu zaiola jakinarazi ondoren, eskatzaileak bederatzi hilabeteko epea izango du gehienez inbertsioak egin eta justifikatzeko, baldin eta dirulaguntzaren ebazpenean epe txikiagoa adierazten ez bada. Epe hori amaitutakoan, ez bada egindako inbertsioaren egiaztagiririk aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Beste epe horretan ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko du.

4. Hornitzaile eta kontratistek egindako fakturak eta ordainagiriak frogagiritzat joko dira, betiere, indarrean dagoen legerian ezarritako balio baldintzak betez gero.

5. Fakturen ordainketaren zuriketa honela izango da, kasuen arabera:

— Eskudirutan ordaindutako fakturak: Fakturak eta hartze-agiria sinatzailearen datuak adierazita. Ezarritako mugak ezin izango dira gainditu: 1.000,00 euro (urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikulua, uztailaren 9ko 11/2021 Legeak egindako aldaketaren arabera).

— Txekez edo ordaindukoen bidez ordaindutako fakturak: Fakturak eta txekearen edo ordaindukoaren kopia.

— Transferentzia bidez ordaindutako fakturak: Fakturak eta bankuaren ordainagiriaren kopia.

— Txeke, ordainduko edo transferentzien bidez egindako ordainketek argi eta garbi adierazi beharko dituzte hartzailearen, agindu-emailearen eta ordaindutako kontzeptuaren datuak. Agindu-emailea diru laguntza eskaera egiten duen ustialekuaren titularra izan beharko da.

*17. oinarria. Publizitatea.*

1. Onuradunei buruzko informazioa argitaratzean kontuan hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretua.

2. Operazio baten inbertsioak guztira 50.000 euroko dirulaguntza publikoa gainditzen badu, onuradunak argibide plaka bat jarriko du, proiektuaren informazioarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza azpimarratuz.

II. TITULUA

LAGUNGARRI DIREN NEURRIEN DESKRIBAPENA

*18. oinarria. Laguntzen xedea.*

Laguntzen helburua izango da basoen eragin ekonomiko, ekologiko eta sozialak zaindu eta hobetzea.

*19. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta jarduketak.*

Ondorengo hiru neurritan zehaztutako inbertsioak eta jarduerak lagungarriak izango dira:

1. 04 neurria: Aktibo fisikoetan egindako inbertsioak. Neurri honen barruan ondoko azpineurriak sartzen dira:

a) 04.3 azpineurria: Azpiegiturak egitea basogintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko.

o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico mercantil o con eficacia administrativa. Las facturas deberán recoger la descripción, medición e importe de las diferentes unidades de obra. Podrá solicitarse la justificación de los suministros de materiales incluidos en la factura.

3. Una vez notificada la concesión de la subvención la persona solicitante dispondrá del plazo máximo de nueve meses para la realización y justificación de las inversiones, a no ser que en la resolución de concesión de la ayuda se establezca un plazo inferior. Transcurrido dicho plazo sin que se hubiera presentado la documentación justificativa de la realización de la inversión, el órgano competente requerirá a la persona beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. Transcurrido este nuevo plazo, la falta de presentación de la justificación lleva aparejada la pérdida del derecho de cobro de la subvención.

4. Se considerarán como justificantes las facturas y comprobantes de pago emitidos por las personas proveedoras y contratistas, que cumplan con los requisitos de validez establecidos en la legislación vigente.

5. La justificación de pago de las facturas deberá ser, según los casos:

— Facturas pagadas en metálico: Factura y recibí con los datos de la persona firmante. No podrán superar los límites legales establecidos: 1.000,00 euros (artículo 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre, conforme a la modificación introducida por Ley 11/2021, de 9 de julio).

— Facturas pagadas con cheque o pagarés: Facturas y copia del cheque o pagaré.

— Facturas pagadas mediante transferencia: Facturas y copia del resguardo bancario.

— Los pagos realizados a través de cheques, pagarés o transferencias deberán reflejar claramente los datos del destinatario, ordenante y concepto abonado. La persona ordenante deberá ser la titular de la explotación que solicita ayuda.

*Base 17. Publicidad.*

1. La publicación de información sobre las personas beneficiarias se realizará siguiendo lo dispuesto en Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. En el caso de operaciones consistentes en inversiones que reciban una ayuda pública total superior a 50.000 euros la persona beneficiaria instalará una placa explicativa con información sobre el proyecto, destacando la ayuda financiera de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

TÍTULO II

DESCRIPCIÓN DE LAS MEDIDAS SUBVENCIONABLES

*Base 18. Finalidad de las ayudas.*

Las ayudas tendrán como finalidad contribuir al mantenimiento y mejora de las funciones económicas, ecológicas y sociales de los bosques.

*Base 19. Inversiones y actuaciones subvencionables.*

Serán auxiliables las inversiones y actuaciones descritas en las tres medidas siguientes:

1. Medida 04: Inversiones en activos físicos. Dentro de esta medida se incluyen las siguientes submedidas:

a) Submedida 04.3: Realización de infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación del sector forestal.

EK\CV GAO-I-2024-03086

2. 08 neurria: Inbertsioak, basoguneak ugaritzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko. Neurri honen barruan ondoko azpineurriak sartzen dira:

a) 08.1 azpineurria: Baso-sartzea eta baso azalera sortzea.

b) 08.3 azpineurria: Suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek eragindako kalteei aurre hartzeko laguntza.

c) 08.6 azpineurria: Basogintzako teknologietarako eta baso produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

3. 15. neurria: Baso ingurumeneko zerbitzuak, klima zerbitzuak eta basoen zaintza. Neurri honen barruan ondoko azpineurriak sartzen dira:

a) 15.1 azpineurria: Basoen ingurumen balioa handitzen duten landaketen kudeaketa.

b) 15.2 azpineurria: Kanpoko espeziez osatutako baso landaketen ordez bertako basoak landatzea.

c) 15.3 azpineurria: Bertako basoen kontserbazioa.

## I ATALA. 04 NEURRIA: AKTIBO FISIKOETAN EGINDAKO INBERTSIOAK. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK, ZENBATEKOAK ETA EHUNEKOA, ONURADUNAK, BALDINTZA BEREZIAK ETA LEHENTASUN IRIZPIDEAK

*20. oinarria. 04.3 azpineurria: Azpiegiturak egitea basogintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Azpiegiturak egiteko inbertsioak eta gastuak, baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko:

— Baso bideak eraiki eta hobetzea.

2. Aplika daitezkeen zenbatekoak eta laguntzaren ehunekoa.

Baso bideen kasuan, inbertsioetarako dirulaguntza azaleraren arabera emango da:

— < 20 ha-ko baso azalerentzat: % 30-40.

— ≥ 20 ≤ 50 ha-ko baso azalerentzat: % 40-55.

— > 50 eta ≤ 100 ha-ko baso azalerentzat: % 55-70.

— > 100 eta ≤ 200 ha-ko baso azalerentzat: % 70-85.

— > 200 ha-ko baso azalerentzat: % 85-90.

Oinarrizko dirulaguntzaren portzentajea tartearen baxuena izango da; portzentajea tartearen altuenera handitu ahalko da eskaera egitean gorabehera hauek gertatzen badira:

— Eskatzailearen adina ≤ 55 urte: % 10eko gehikuntza.

— Eskatzailearen adina 67 urte edo gehiago izanik, Gizarte Segurantzan afiliatua badago, nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenean edo erretiro pentsioa jasotzen badu nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenaren arabera: % 10eko gehikuntza.

— Mendialdeetako eta muga natural nabarmenak dituzten beste aldeetako konpentsazio ordainen ebatzitako azken deialdian nekazaritza ogibide nagusia izatea (ATP) onartu zitzaion eskatzaileak: % 10eko gehikuntza.

— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: % 10eko gehikuntza.

— Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa (BKIPT) onartuta edukitzea: % 10eko gehikuntza.

2. Medida 08: Inversiones en el desarrollo de zonas forestales y mejora de la viabilidad de los bosques. Dentro de esta medida se incluyen las siguientes submedidas:

a) Submedida 08.1: Forestación y creación de superficies forestales.

b) Submedida 08.3: Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes.

c) Submedida 08.6: Inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización de productos forestales.

3. Medida 15: Servicios silvoambientales y climáticos y conservación de los bosques. Dentro de esta medida se incluyen las siguientes submedidas:

a) Submedida 15.1: Gestión de plantaciones forestales que incremente el valor medioambiental de los mismos.

b) Submedida 15.2: Sustitución de plantaciones forestales con especies alóctonas por bosques autóctonos.

c) Submedida 15.3: Conservación de bosques autóctonos.

## SECCIÓN I. MEDIDA 04: INVERSIONES EN ACTIVOS FÍSICOS: ACTUACIONES SUBVENCIONABLES, IMPORTES APLICABLES Y PORCENTAJE DE AYUDA, PERSONAS BENEFICIARIAS, REQUISITOS ESPECÍFICOS Y CRITERIOS DE PRIORIZACIÓN

*Base 20. Submedida 04.3: Realización de infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación del sector forestal.*

1. Actuaciones subvencionables.

Las inversiones y gastos relativos a la realización de infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación del sector forestal comprenden:

— Construcción y mejora de pistas forestales.

2. Importes aplicables y porcentaje de ayuda.

En el caso de pistas forestales el importe de subvención para estas inversiones dependerá de la superficie atendida:

— Para superficie forestal < 20 has: 30 %-40 %.

— Para superficie forestal ≥ 20 ≤ 50 has: entre 40 % y 55 %.

— Para superficie forestal > 50 y ≤ 100 has: entre 55 % y 70 %.

— Para superficie forestal > 100 y ≤ 200 has: entre 70 % y 85 %.

— Para superficie forestal > 200 has: entre 85 % y 90 %.

El porcentaje de subvención básico será el inferior del intervalo, pudiéndose incrementar hasta el máximo del intervalo si concurre alguna de estas circunstancias en el momento de realizar la solicitud:

— Edad del/la solicitante ≤ 55 años: incremento de un 10 %.

— Solicitante de edad ≥ 67 años que este afiliado al Régimen de la Seguridad Social que corresponda en función de la actividad agraria o perciba pensión de jubilación por el régimen que corresponda en función de la actividad agraria: incremento de un 10 %.

— Solicitante que obtuviera la consideración de agricultor o agricultora a título principal (ATP) en la última convocatoria resuelta de las ayudas para la indemnización compensatoria en zonas de montaña y en otras zonas con limitaciones naturales significativas: incremento de un 10 %.

— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5: incremento de un 10 %.

— Contar con un Plan Técnico de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS) aprobado: incremento de un 10 %.

EK\CV GAO-I-2024-03086

— Ustiategiari baso azalera gehitu bazaio, 0,5 ha gutxienez azken urtean, betiere hasierako baso azalera 20 ha baino txikiagoa bada: % 5eko gehikuntza.

Inbertsio aurrekontuak eskaeran jasoko dira eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako txostenaren bidez moderatuko dira.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko inbertsioa edo inbertsioen guztizkoa 60.000 € izango da onuradun bakoitzeko eta urteko. Gutxienekoa 1.500 eurokoa izango da.

3. Onuradunak.

Dirulaguntzaren onuradunak izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak, eta horiei lotutako elkarteak izango dira. Erakunde publikoek ezingo dute dirulaguntza honen onuradun izan.

4. Baldintza bereziak.

a) Baso bideen eskaera espedienteekin batera proiektu edo proposamen teknikoa aurkeztu behar da, teknikari eskudunak idatzia. Proiektu edo proposamen horretan ondorengoa zehaztuko da: inbertsioaren premia egiaztatzen duen memoria; kokapenaren eta xehetasun planoa, zerbitzu ematen dion lursailaren azalera; batez besteko eta gehieneko maldak; obraren ezaugarriak; unitateko aurrekontua eta aurrekontu orokorra; legeak agintzen duen neurrian ingurumen eraginaren gaineko azterketa.

b) Pista berrietan, trazatuak % 12 baino gutxiagoko batez besteko malda eduki behar du, eta gehienekoa % 16 baino gutxiagokoa izango da. Salbuespenez onartuko da malda handiagoa ere, memorian behar bezala zuritzen bada, aurretik dauden pistak moldatu behar direnean edo harkaitz artean irekidurak egin behar direnean.

c) Ez da dirulaguntzarik emango aurreko 5 urteetan dirulaguntzaren bat jaso duten bideetan mantentze lanak egiteko, hondamendi natural apartekoek eragindako kalteak konpontzeko ez bada.

d) Eskaera elkargo batek egiten duenean, ondorengo dokumentu hauek aurkeztu behar dira: elkargoaren eraketa egiaztatzen duena eta proiektuko obra egin eta erabiltzeko interesatu bakoitzak duen partaidetzari buruz bazkideek hartutako erabakiak. Eskaera elkarte batek aurkezten ez badu ere, lanak egiteko pistaren gainerako titularren adostasuna aurkeztu beharko da.

e) Herri onurako mendietan egindako lanak ez dira diruz lagunduko.

f) Bideak hormigoitzea ez da diruz lagunduko.

g) Lanak egin baino lehenago, lanak hasiko diren egunaren berri eman beharko zaio basozainari, egiaztatu ahal izateko.

h) Ez dira diruz lagunduko zur-ateratzeak edo beste lan batzuek eragindako kalteak konpontzeko lanak, konponketa hori errematatzaileak bere kontura egin behar duela ulertuta.

5. Lehentasun irizpideak.

Espedienteak hautatzeko lehentasun ordena hektarea gehien eragiten duen jardueraren arabera egingo da. Lehentasuna izango dute hondamendi natural apartekoek eragindako kalteak konpontzeko jarduerek. Balorazio berdina lortuz gero, lehentasuna izango dute sustatzaile txikiek sustatutako proiektuek handien aurrean, ondorengo sailkapen honen arabera: basogintza elkarteak, baso jabeak.

— Explotación en la que se haya incrementado la superficie forestal en al menos 0,5 has en el último año, siendo la superficie forestal inicial inferior a 20 has: incremento de un 5 %.

Los presupuestos de inversión deberán recogerse en la solicitud y podrán ser moderados por informe del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats.

La inversión o suma de inversiones máximas auxiliables por persona beneficiaria y año será de 60.000 €. La mínima de 1.500 €.

3. Personas beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de esta ayuda personas físicas o jurídicas de carácter privado y sus asociaciones. No podrá ser beneficiario de la ayuda ningún ente público.

4. Requisitos específicos.

a) Los expedientes de solicitud de pistas forestales deberán ir acompañados del proyecto o propuesta técnica, redactada por técnico competente, que comprenderá: memoria justificativa de la necesidad de la inversión, plano de situación y de detalle, superficie a la que da servicio, en el caso de pistas pendientes medias y máximas, características de la obra, presupuesto unitario y general, y estudio de impacto ambiental en el grado que sea preceptivo.

b) En las pistas de nueva construcción, el trazado habrá de tener una pendiente media menor del 12 % y una máxima menor del 16 %. Excepcionalmente se admitirá una pendiente mayor, debidamente justificada en la memoria, en los casos de adaptación de pistas existentes o aperturas en roca.

c) No se subvencionarán los trabajos de mantenimiento de pistas que en los 5 años anteriores hayan sido objeto de subvención, excepción hecha de daños por fenómenos naturales extraordinarios o extremos.

d) En el caso de que la solicitud sea presentada por una agrupación, se deberá aportar la documentación que acredite la formalización de la misma y los acuerdos de los miembros en cuanto a la participación de cada persona interesada en la construcción y uso de la obra proyectada. Aun cuando la solicitud no sea presentada por una agrupación deberá presentarse el consentimiento del resto de los titulares de la pista para la realización de los trabajos.

e) No se subvencionarán trabajos realizados en montes de utilidad pública.

f) No se subvencionará el hormigonado del firme.

g) Con antelación a la realización de los trabajos deberá avisarse al guardería forestal del día de inicio de los mismos para su comprobación.

h) No se subvencionarán trabajos de reparación de daños causados por la saca de madera u otros trabajos, entendiendo que dicha reparación debe realizarla el rematante a su cuenta.

5. Criterios de prioridad.

La selección de expedientes se realizará en orden de prioridad conforme al mayor número de hectáreas atendidas con la actuación, si bien tendrán prioridad las actuaciones derivadas de la reparación de daños causados por fenómenos naturales extraordinarios o extremos. A igualdad de valoración tendrán prioridad los proyectos promovidos por promotores/as de menor entidad frente a los de mayor entidad por este orden: agrupaciones de forestalistas, forestalistas.

EK\CV GAO-I-2024-03086

2 ATALA. 08. NEURRIA. BASOGUNEAK UGARITZEKO ETA BASOEN BIDERAGARRITASUNA HOBETZEKO INBERTSIOAK. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK, ZENBATEKOAK ETA EHUNEKOAK, ONURADUNAK, BALDINTZA BEREZIAK ETA LEHENTASUN IRIZPIDEAK

*21. oinarria. 08.1 azpineurria: Baso-sartzea eta baso azalera sortzea.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Ondorengo hauek dira baso landaketan kontuan hartuko diren inbertsio eta gastuak: lurra prestatzea, landarea, lurra zulatzea eta landaketa, babesleak, zurkaitz edo itxiturak egitea (horiek kentzea barne), lehen urteko hutsak birjartzea, sasi garbiketak, ongarritzeak eta kimaketak baso landaketa egin eta lehenengo 12 urteetan.

2. Aplika daitezkeen zenbatekoak eta laguntzaren ehunekoa.

Honako hauek dira jarduera horiei dagozkien moduluak eta ehunekoak:

Baso landaketaren lana berari dagokionez (lurra prestatzea, lurra zulatzea, landarea eta landaketa), laguntzaren oinarrizko ehunekoa % 50ekoa izango da espezie lagungarri guztientzat.

Baso-sartzera bideratutako laguntzaren oinarrizko portzentajea handitu ahal izango da, gehienez % 90 arte, eskaera egitean gorabehera hauek gertatzen badira:

— Eskatzailearen adina ≤ 55 urte: % 10eko gehikuntza.

— Eskatzailearen adina 67 urte edo gehiago izanik, Gizarte Segurantzan afiliatua badago, nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenean edo erretiro pentsioa jasotzen badu nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenaren arabera: % 10eko gehikuntza.

— Mendialdeetako eta muga natural nabarmenak dituzten beste aldeetako konpentsazio ordainen ebatzitako azken deialdian nekazaritza ogibide nagusia izatea (ATP) onartu zitzaion eskatzaileak: % 10eko gehikuntza.

— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: % 5eko gehikuntza.

— Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa (BKIPT) onartuta edukitzea: % 10eko gehikuntza.

— Ustiategiari baso azalera gehitu bazaio, 0,5 ha gutxienez azken urtean, betiere hasierako baso azalera 20 ha baino txikiagoa bada: % 5eko gehikuntza.

SECCIÓN II. MEDIDA 08. INVERSIONES EN EL DESARROLLO DE ZONAS FORESTALES Y MEJORA DE LA VIABILIDAD DE LOS BOSQUES. ACTUACIONES SUBVENCIONABLES, IMPORTES APLICABLES Y PORCENTAJE DE AYUDA, PERSONAS BENEFICIARIAS, REQUISITOS ESPECÍFICOS Y CRITERIOS DE PRIORIZACIÓN

*Base 21. Submedida 08.1: Forestación y creación de superficies forestales.*

1. Actuaciones subvencionables.

Las inversiones y gastos auxiliables relativos a la forestación comprenden: preparación del terreno, la planta, el ahoyado y la plantación, los protectores, los tutores o los cierres (incluso la retirada de estos últimos), así como la reposición de marras del primer año, desbroces, abonados y podas dentro de los primeros 12 años desde que se efectúe la forestación.

2. Importes aplicables y porcentaje de ayuda.

Los módulos y porcentajes subvencionables para estas actuaciones serán:

Para el trabajo de forestación propiamente dicho (preparación del terreno, el ahoyado, la planta y la plantación) el porcentaje básico de ayuda será del 50 % para todas las especies subvencionables.

Este porcentaje básico de ayuda para la forestación se verá incrementado en los siguientes porcentajes, hasta un máximo del 90 %, en caso de concurrir alguna de estas circunstancias en el momento de realizar la solicitud:

— Edad del/la solicitante ≤ 55 años: incremento de un 10 %.

— Solicitante de edad ≥ 67 años que este afiliado al Régimen de la Seguridad Social que corresponda en función de la actividad agraria o perciba pensión de jubilación por el régimen que corresponda en función de la actividad agraria: incremento de un 10 %.

— Solicitante que obtuviera la consideración de agricultor o agricultora a título principal (ATP) en la última convocatoria resuelta de las ayudas para la indemnización compensatoria en zonas de montaña y en otras zonas con limitaciones naturales significativas: incremento de un 10 %.

— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5: incremento de un 5 %.

— Contar con un Plan Técnico de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS) aprobado: incremento de un 10 %.

— Explotación en la que se haya incrementado la superficie forestal en al menos 0,5 has en el último año, siendo la superficie forestal inicial inferior a 20 has: incremento de un 5 %.

| *Espezie taldeak*<br>*Grupos de especies* | *Espezieak*<br>*Especies* |
|---|---|
| Ziklo laburrekoak<br>Ciclo corto | P. taeda, Populus spp., P. pinaster, Alnus glutinosa |
| Ziklo ertainekoak<br>Ciclo medio | Pseudotsuga menziesii, Larix spp., Chamaecyparis lawsoniana, Cryptomeria japonica, Picea spp., Cedrus spp., P. nigra, Sequoia spp., Q. rubra, Liriodendron tulipifera |
| Ziklo ertaineko hostozabal autoktonoak<br>Ciclo medio frondosas autóctonas | Betula spp., Prunus avium, Fraxinus excelsior, Acer pseudoplatanus. Castanea spp. Juglans spp |
| Ziklo luzekoak<br>Ciclo largo | Q. robur, Q. petraea, Q. ilex, Q. suber, Fagus sylvatica, Tilia platyphyllos. P. sylvestris |

Zerrenda horretan ageri ez diren espezieak Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak sailkatuko ditu, dituzten ezaugarrien arabera.

Las especies que no aparezcan en esta lista se clasificarán por el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats en función de sus características.

EK\CV GAO-I-2024-03086

| *Espezie taldeak*<br>*Grupos de especies* | *Aurretiko prestaketa*<br>*Preparación previa* | *Baso-sartze modulua*<br>*Módulo forestación*<br>*(€/ha)* |
|---|---|---|
| Ziklo laburrekoak<br>Ciclo corto | Prestaketarik gabe<br>Sin preparación | 1.450 |
| | Eskuzkoa<br>Manual | 2.500 |
| | Mekanizatua<br>Mecanizada | 2.100 |
| | Hutsarteak<br>Marras | 205 |
| Ziklo ertainekoak<br>Ciclo medio | Prestaketarik gabe<br>Sin preparación | 1.750 |
| | Eskuzkoa<br>Manual | 2.750 |
| | Mekanizatua<br>Mecanizada | 2.350 |
| | Hutsarteak<br>Marras | 245 |
| Ziklo ertaineko hostozabal autoktonoak<br>Ciclo medio frondosas autóctonas | Prestaketarik gabe<br>Sin preparación | 1.800 |
| | Eskuzkoa<br>Manual | 3.000 |
| | Mekanizatua<br>Mecanizada | 2.600 |
| | Hutsarteak<br>Marras | 245 |
| Ziklo luzekoak<br>Ciclo largo | Prestaketarik gabe<br>Sin preparación | 2.000 |
| | Eskuzkoa<br>Manual | 3.100 |
| | Mekanizatua<br>Mecanizada | 2.650 |
| | Hutsarteak<br>Marras | 260 |

Baso-sartze moduluan sartzen dira lurra prestatzea, zuloak egitea, landarea eta landaketa.

Azpineurri honetan sartutako beste lanen moduluak eta ehunekoak:

El módulo de forestación incluye la preparación del terreno, el ahoyado, la planta y la plantación.

Módulos y porcentaje de ayuda de otros trabajos incluidos en esta submedida:

| *Jarduera*<br>*Actuación* | *Dekribapena*<br>*Descripción* | *Modulua*<br>*Módulo* | *Dirulaguntza %*<br>*Subvención %* |
|---|---|---|---|
| Ilaraka edo lanadarearen inguruan sastrakak kentzea<br>Desbroces por filas o en el entorno de la planta | | 360 €/ha | 50 |
| Sastrakak erabat kentzea<br>Desbroces extensivos | | 480 €/ha | 50 |
| Itxiturak<br>Cierres | Sare zinegetikodun itxiturak + txarrantxa hari 1 edo 5 hari<br>Cierres con malla cinegética + 1 hilo espino o 5 hilos | 5,20 €/ml | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |
| | Txarrantxadun itxiturak, gutxienez 4 lerrokoak<br>Cierres con filas de alambre de espino 4 filas como mínimo | 4,40 €/ml | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |

EK\CV GAO-I-2024-03086

| Jarduera<br>Actuación | Dekribapena<br>Descripción | Modulua<br>Módulo | Dirulaguntza %<br>Subvención % |
|---|---|---|---|
| | Sare zinegetikodun itxitura altua 1,5 m + 2 txarrantxadun hari<br>Cierre alto con malla cinegética 1,5 m + 2 hilos de alambre de espino | 7,50 €/ml | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |
| | Itxiturak kentzea<br>Retirada de cierres | 1,85 €/ml | 50 |
| Babesak<br>Protectores | 1,80 m + hesola<br>1,80 m + estaca | 3,90 €/ud. | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |
| | 1,50 m + hesola<br>1,50 m + estaca | 3,35 €/ud. | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |
| | 1,20 m + hesola<br>1,20 m + estaca | 2,30 €/ud. | Idem baso-sartzeak<br>Idem forestaciones |
| Uxagarriak, area pasatzea, ongarritzeak, mikorrizaioa eta antzekoak<br>Empleo de repelentes, trabajos de escarificado, abonados micorrización o similares | | 300 €/ha | 50 |

Tauletan ageri ez diren moduluak eta ehunekoak 08.6 azpineurrian jasotako taularen arabera ordainduko dira.

Babesleetan egiten den inbertsioa 2.000 €/ha-koa izango da gehienez ere.

12 urte baino gutxiago dituzten aleetan egindako inausketak baloratzeko eta diruz laguntzeko, 08.6 azpineurrian adierazitako moduluak eta ehunekoak hartuko dira kontuan.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko inbertsioa edo inbertsioen guztizkoa 60.000 € izango da onuradun bakoitzeko eta urteko. Gehieneko muga hori 80.000 €-ra iritsi ahal izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoan baso masen azken aprobetxamendurako gutxieneko txandak ezartzen dituen otsailaren 28ko 09 LI/2022 Foru Aginduan ezarritako txanda baino lehen zuhaitzak moztu beharraren ondoren basoberritzeak egiten badira.

3. Onuradunak.

Dirulaguntza hau jasoko dute lurren titular eta kudeatzaile pribatuek, eta horiei lotutako elkarteek. Erakunde publikoek ezingo dute dirulaguntza honen onuradun izan.

4. Baldintza bereziak.

Baso landaketetarako laguntza eskaeren espedienteetan, kanpainan zehar titularrak egin behar dituen baso landaketa guztiak adierazi behar dira, mantentze lanak barne.

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da.

Baso landarea hobetzeko indarrean dauden programetan xedatutakoa beteko da, eta ugalketako baso materialen ekoizpenari, merkaturatzeari eta erabilerari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko da.

Erabilitako haziaren jatorria egiaztatzeko, dirulaguntza espedienteari erabilitako landare sortari buruzko hornitzailearen agiria erantsi beharko zaio, behar bezala beteta.

Onuradunak baso landaketa babestu eta zaindu behar du. Behar bezala zaindu ez izateagatik egindako baso landaketa galtzen bada eta berriz ere zuhaitz landaketa egin behar izanez gero, ez du dirulaguntzarik jasoko, baldin eta aurrez jasotako laguntzak itzultzen ez baditu.

Basoa berritzeko itxiturak eta babesleak landaketaren ondorengo bi urteetan bakarrik lagunduko dira diruz. Itxiturak eta babesleak ez dira batera diruz lagunduko baso landaketa bakar baten barruan, baldin eta basa animalien ondoriozko kalteak izan ez badira. Kasu horretan, babesleak jarri ahal izango dira basoa berritzen denetik bost urte igaro arte. Ez dira diruz lagunduko 21.2 oinarrian adierazitako altuera baino txikiagoa duten babesleak.

Los módulos y porcentajes no incluidos en estos cuadros se abonarán conforme al cuadro recogido en la submedida 08.6.

La inversión en protectores será como máximo 2.000 €/ha.

Las podas realizadas antes de los 12 años de edad se valorarán y subvencionarán según los módulos y porcentajes establecidos en la submedida 08.6.

La inversión o suma de inversiones máximas auxiliables por persona beneficiaria y año será de 60.000 €. Este tope máximo podrá alcanzar los 80.000 € en el caso de tratarse de repoblaciones realizadas tras la corta del arbolado por motivos fitosanitarios antes del turno establecido en la Orden Foral 09 LI/2022, de 28 de febrero, por la que se establecen los turnos mínimos de aprovechamiento final de masas arboladas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Personas beneficiarias.

Se concederá esta ayuda a titulares y gestores de tierras privados y sus asociaciones. No podrá ser beneficiario de la ayuda ningún ente público.

4. Requisitos específicos.

Los expedientes de solicitud de ayuda para forestaciones, deberán contemplar todas las forestaciones que vaya a realizar la persona titular en la campaña, incluyendo los trabajos de mantenimiento.

La superficie mínima de actuación será de 0,5 hectáreas.

Se seguirá lo dispuesto en los programas vigentes de mejora de planta forestal y se deberá cumplir la normativa vigente sobre producción, comercialización y utilización de materiales forestales de reproducción.

La comprobación de la procedencia de la semilla se realizará acompañando al expediente de subvención el documento del proveedor/a debidamente cumplimentado, correspondiente a las partidas de planta utilizadas.

La persona beneficiaria está obligada a proteger y cuidar la forestación. Cuando por una manifiesta falta de cuidados de la que se deriva la pérdida de la plantación sea preciso realizar una nueva plantación ésta no será subvencionable a no ser que se reintegren las ayudas concedidas anteriormente.

Los cierres de repoblación y los protectores se subvencionarán hasta los dos años desde que se realice la plantación. Los cierres y protectores no serán subvencionables conjuntamente en una misma forestación a no ser que se sufran daños por fauna silvestre en cuyo caso los protectores podrán instalarse hasta los cinco años desde que se realice la plantación. No se subvencionarán protectores con altura inferior a la indicada en la base 21.2.

EK\CV GAO-I-2024-03086

Gutxieneko landaketa dentsitatea espezieka:

Densidad de plantación mínima por especies:

| *Espeziea<br>Especie* | *Gutxieneko landaketa dentsitatea<br>Densidad de plantación mínima* |
|---|---|
| Larizio pinua-Pinus nigra-Pino laricio | 1.100 |
| Itsas pinua-Pinus pinaster-Pino marítimo | 1.100 |
| Taeda pinua-Pinus taeda-Pino taeda | 1.100 |
| Douglas izeia-Pseudotsuga menziesii-Abeto Douglas | 800 |
| Alertze-Larix sp.-Alerce | 1.100 |
| Lawson altzifera-Chamaecyparis lawsoniana-Ciprés de Lawson | 1.100 |
| Sequoia | 800 |
| Criptomeria | 800 |
| Hostozabalak-Frondosas | 600 |
| Beste koniferoak-Otras coníferas | 800 |

Hutsarteak betetzeak, gutxienez, hasieran erabilitako landare kopuruaren % 5 izan beharko du. Ehunekoa txikiagoa bada, ez da diruz lagunduko.

Sastraka garbiketak landarearen inguruan egingo dira, lerroka edo estentsiboki, dauden beharren arabera. Sastraka garbiketa herbizidak erabiliz egin bada, dokumentu bidez ziurtatu beharko da betetzen direla irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duenak, ezarritako baldintzak.

Baso lanekin lotuta ez dauden sastraka garbiketak diruz lagunduko dira, kasu hauetan:

— Intsinis pinuak eta itsas pinuak, lehen bost urteetan.

— Gainerako konifero espezieak, lehen sei urteetan.

— Espezie hostozabalak, lehen zortzi urteetan.

Basoberritzea egiten den urtea hartuko da lehen urtetzat.

Hasierako urte horietan sastrakak kentzeagatik ez da dirulaguntzarik emango, arrazoi teknikoak direla eta baso landaketa egiteko baimena ukatu zaien mendien kasuan.

Ongarritze lanak gehienez hiru aldiz egingo dira txanda bakoitzean eta hiru urte pasa baino lehenago ezingo dira errepikatu. Erabiliko diren ongarriak fosfatoan aberatsak izango dira, nitrogeno, fosforo eta potasioren arteko erlazioa 1:3:2 gomendatzen delarik. Landaketa gazteetan (6 urtetik beherakoetan) gehienez 250kg/ha eta gutxienez 70 kg/ha erabiliko dira eta 500 kg/ha gehienez eta 150 kg/ha gutxienez adin hori baino zaharragoetan. Ongarritu aurretik behar adina aurrerapenarekin basozainei hasiera egunaren abisua emango zaie, dagokion egiaztapena egin dezaten.

Itxiturak kentzean, behar bezala kudeatu beharko dira hondakinak, eta ez da inola ere onartuko horiek mendian uztea. Salbuespenezko kasuetan egurrezko hesolak mendian utzi ahal izango dira, beti ere egoki pilatuta eta metal zatirik gabe baldin badaude. Itxitura kentzea ez da diruz lagunduko, baldin eta neurri horrek basoberritzea arriskuan jartzen badu, landarearen tamaina dela eta.

Laguntza hauetan ez dira sartuko ondorengo baldintzetan egindako baso landaketak:

a) Aztarna arkeologikoetan, monumentuetan eta abarretan eragin negatibo nabarmena izan dezaketen baso landaketak.

La reposición de marras deberá de ser de al menos un 5 % de la planta inicialmente utilizada. Porcentajes menores no serán objeto de subvención.

Los desbroces se realizarán localizados en el entorno de la planta, por filas o de manera extensiva en función de las necesidades. En caso de desbroces con herbicidas deberá acreditarse documentalmente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios.

Los desbroces, no asociados a otros trabajos selvícolas, se subvencionarán:

— Los cinco primeros años en las especies Pino insignis y Pino marítimo.

— Los seis primeros años en las demás especies de coníferas.

— Los ocho primeros años en las especies frondosas.

El año en que se realiza la repoblación se considera el primer año.

Las subvenciones para los desbroces de estos años iniciales se referirán, en todo caso, a montes cuyas forestaciones no hayan sido denegadas por razones técnicas.

Las labores de abonado se realizarán un máximo de tres veces en el turno no pudiéndose repetir en el plazo de 3 años. Los abonos a utilizar serán ricos en fosforo siendo aconsejable relaciones 1:3:2 para el nitrógeno fósforo y potasio. Las cantidades a aplicar serán de un máximo de 250 kg/ha y un mínimo de 70 kg/ha para abonados en plantaciones jóvenes (<6 años) y máximo de 500 kg/ha y mínimo de 150 kg/ha para edades posteriores. Con antelación suficiente a su realización deberá avisarse al guardería forestal del día de inicio para su comprobación.

En la retirada de cierres deberán gestionarse los residuos convenientemente, no admitiéndose su abandono en el monte. Excepcionalmente podrán depositarse en el monte los piquetes de madera, convenientemente apilados y libres de elementos metálicos. No se subvencionará su retirada en los casos en los que dicha medida ponga en peligro la repoblación por el escaso tamaño de la planta.

Quedarán excluidas de estas ayudas las forestaciones que se planteen en los siguientes supuestos:

a) Forestaciones que puedan de una forma evidente suponer un impacto negativo sobre restos arqueológicos, monumentos, etc.

EK\CV GAO-I-2024-03086

b) Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketaren ondorioz (derrigorrezkoa denean azterketa egitea) eta, gaiari buruzko arauak kontuan hartuta, baso landaketa egitea ukatzen bada.

c) Baso landaketak ez baditu betetzen erriberen, ibai bazterren eta errekatxoen zainketari buruzko irizpideak, indarrean den baso arautegia, naturgune babestuetako araudi berezia, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak lurra prestatzeko ezarritako jarraibideak. Alde horretatik, lurra prestatzeko makineria erabiltzen bada, 34/2002 eta 19/2003 Foru Dekretuetan eta horiek garatzen dituzten 2003ko apirilaren 30eko Foru Aginduan eta 2007ko apirilaren 18ko Foru Aginduan xedatutakoa bete behar da.

d) Ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta guztiz desegokiak diren espezieak erabiltzen badira.

e) Eguberrietako zuhaitzen landaketak. Eukaliptoarekin edo beste espezie batzuekin egindako landaketak, 25 urte baino gutxiagoko mozte epea dutenak.

f) EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean balio estrategiko handiko lursail edo trantsizioko landa paisaia gisa sailkatuta dauden nekazaritza lurretan, % 30eko batez besteko malda baino txikiagoa dutenetan, egindako landaketak.

g) Espainiako espezie inbaditzaileen katalogoan sartutako espezieak erabiliz egiten diren landaketak.

h) Araudi fitosanitarioa dela medio debekatuta dauden espezieak erabiliz egindako landaketak.

i) Herri onurako mendietan egindako landaketak.

j) Intsinis pinuarekin egindako landaketak, gaur egun espezie honek duen egoera sanitario eskasa dela eta.

5. Lehentasun irizpideak.

Onuradunak hautatzeko puntuazio sistema bat jarraituko da, honako irizpide hauen arabera:

1.— Jarduerak, Administrazioak onartutako Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak edo Antolaketa Proiektuak dituzten mendietan, baldin eta plan horiek ustiategiko baso-lurren % 85 hartzen badute gutxienez: 25 puntu.

2.— Pertsona onuradunaren adina ≤ 55 urte: 10 puntu.

3.— Nekazaritza ustiategia, nekazaritza edo abeltzaintza sektoreari dagokion Nekazaritzako Lan Unitatea (ALU) 0,5-koa edo handiagoa duena: 10 puntu.

4.— Eskatzailearen adina 67 urte edo gehiago izanik, Gizarte Segurantzan afiliatua badago, nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenean edo erretiro pentsioa jasotzen badu nekazaritza jardueraren arabera dagokion erregimenaren arabera: 10 puntu.

5.— Mendialdeetako eta muga natural nabarmenak dituzten beste aldeetako konpentsazio ordainen ebatzitako azken deialdian nekazaritza ogibide nagusia izatea (ATP) onartu zitzaion eskatzaileak: 25 puntu.

6.— Titularra emakumea duen nekazaritza-ustiategia: 5 puntu.

Puntuetan berdinketa izanez gero, aurrekontu handiagoa duten inbertsioak lehenetsiko dira.

*22. oinarria. 08.3 azpineurria: Suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek eragindako kalteei aurre hartzeko laguntza.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Neurri honen helburua da suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek basoetan eragiten dituzten kalteei aurre hartzeko jarduerak gauzatzea.

b) Aquellas forestaciones que, como consecuencia de las evaluaciones de impacto ambiental, en los casos en que ésta sea preceptiva, no sean aprobadas, conforme a la normativa de aplicación en la materia.

c) Forestaciones que incumplan las directrices de mantenimiento de riberas y márgenes de ríos y arroyos, y la normativa forestal vigente, así como aquéllas que incumplan lo establecido en la legislación específica de los espacios naturales protegidos o las directrices de preparación del suelo marcadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa. En este sentido, en la preparación del terreno con utilización de maquinaria deberá cumplirse lo establecido en los Decretos Forales 34/2002 y 19/2003 y en las órdenes forales de 30 de abril de 2003 y 18 de abril de 2007 que los desarrollan.

d) Forestaciones que utilicen especies manifiestamente inadecuadas para la estación de la que se trata.

e) Plantaciones de árboles de Navidad. Forestaciones con eucalipto u otras especies que tengan un turno de corta inferior a 25 años.

f) Forestaciones que se realicen en tierras agrícolas que estén clasificadas como de alto valor estratégico o paisaje rural de transición en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV que tengan una pendiente media inferior al 30 %.

g) Forestaciones que utilicen especies incluidas en el catálogo español de especies invasoras.

h) Forestaciones que utilicen especies prohibidas en aplicación de la normativa fitosanitaria.

i) Forestaciones que se realicen en montes de utilidad pública.

j) Forestaciones con pino insignis, dado su mal estado sanitario actual.

5. Criterios de prioridad.

Se seguirá un sistema de puntuación basándose en los siguientes criterios de selección de las personas beneficiarias:

1.— Actuaciones en montes con Proyectos de Ordenación o Plan Técnico de Gestión forestal sostenible (PTGFS) aprobado por la Administración, siempre y cuando estos planes abarquen al menos el 85 % de los terrenos forestales de la explotación: 25 puntos.

2.— Edad de la persona beneficiaria ≤ 55 años: 10 puntos.

3.— Explotación agraria con unidad de trabajo agrario (UTA) correspondiente al sector agrícola o ganadero superior o igual a 0,5: 10 puntos.

